

razionaltasun sendoz berraztertu behar luke une honexetan bere burua. Ez liguke bide txarra eskainiko Zubiri zenak geure sus-traiak berriro aurkitzeko. ■ *Joan Mari Ilarduia*. (Itzultzailea: *Joan M. Iturria*).

ZERGATIK HIL DITUZTE?

Berrehun eta hirurogeitabederatzi lagun garbitu dituzte, 269 lagun. Garbiki garbitu, gainera. Ez guk, noski. Haiak, besteek, betikoek, guztiok dakigun horiek egin dute horrelako txikizioa.

Protesta ugari egin da ondoren. Hitz gogorrek entzun dira. Ordainzkatu ere egin dituzte batzuren batzuk hilkitza horren egileak; beste hitzez esanda, errepresaliak hartu dituzte hiltzai-leen kontra. Baina batzuen salaketen eta besteen zuriketa eta kontrasalaketen gaineratik —edo azpitik—, zein da egia? Zer gertatu da hor? (Beno, zer gertatu den jakina da: 269 gizon—emakume bidali dituztela beste mundura). Zer egiten zuen hor abioi horrek? Batzuek esan duten bezain «zibila» ote zen? Ala espioi-tzan zebilen, besteek salatu duten bezala?

Egia jakiterik ez dugu izango seguruenik. Hori ez dagokigu guri. Oinezko hiritar gizagaixook aski dugu jakitea, berrehun eta hirurogeita bederatzi gizaki desagertu direla beste gizaki batzuk hala nahita. Eta, zertarako jakin behar dugu gehiago? Zer irabaziko genuke horrekin? Une hauetan, izan ere, merezi du inorengan sinesteak? Gutxien espero dugunean, agertuko da libururen bat, gertaera horretaz egia osoa eta bete aginduko du-guna. Eta zer? Orain dela gutxi —urriaren hogeitabostean ari naiz hau idazten— liburudenda batean ikusten nuen liburuak eskaintzen zuenaren antzekoa izango da: *Toda la verdad sobre el caso Urquijo*, edo horrelako zerbait zioen liburuaren izenbu-ruak. Eta geroztik ari da, ari, datu interesgarririk ateratzen ara-zo horren inguruan!

Egia jakin nahiko genukeenoi hitzak ematen zaizkigu. Ugari eman ere. Baina hitzak, badakigu, haizeak eramaten ditu. Oker-rena da, oraingo honetan hitzak ezezik beste zerbait ere era-man duela haizeak: berrehun eta hirurogeitabederatzi gizon eta emakume eramaten ditu. Eta guk ez dakigu zergatik! ■ *Pello Huizi*.